IV. Planaren atal honetan, hiru Apustu Estrategikoen betetze-maila ebaluatzen da, dagozkien Ekintza lerroen bitartez. Hobeto uler dadin, laburpen-taula bat erantsi da, egindako ekintzen azterketa zehatzaren aurretik doana. Azterketa hori Urteko Plan Operatiboaren berrikuspenean, aurrez aurre egindako bilera eta elkarrizketetan eta aztertutako dokumentazio osoan oinarritzen da.

Betetze-maila III. Planaren ebaluazioan erabilitako metodologia berari jarraituz aurkeztu da. Horrela, bi planetan errepikatutako ekintzak alderatuz gero, antzekotasunak, desberdintasunak eta aurrerapenak identifikatu daitezke.

Aurreko ebaluazioan ez bezala, txosten honek, ekintza-lerroen *balorazioan*, iruzkin orokor bat jasotzen du, honako hauen bidez bildutako informazioan oinarritua: elkarrizketak, inplikaturako eragileekin aurrez aurre egindako bilerak, lineako inkesta, dokumentazioaren berrikuspena eta, bereziki, Urteko Plan Operatiboak.

Ez da lortu	Eraitza horretarako aurreikusitako ekintzen % 0-30 beteta izatea.
Partzialki lortu da	Eraitza horretarako aurreikusitako ekintzen % 31-50 beteta.
Ia lortua	Eraitza horretarako aurreikusitako ekintzen % 51-80 beteta.
Lortua	Eraitza horretarako aurreikusitako ekintzen % 81-100 beteta.

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA	
LANKIDETZARAKO ETA GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZARAKO (GEH) EREDU KRITIKO ETA ERALDATZAILEA BULTZATZEN JARRAITZEA, GIZARTE BIDEZKOAGOAK, ZUZENAGOAK, KONPROMETITUAGOAK ETA SOLIDARIOAGOAK LORTZEN LAGUNTZE ALDERA, IPARRALDEAREN ETA HEGOALDE GLOBALAREN ARTEKO LOTURA INDARTUZ.	
1.1 Plan honen ikuspegiari koherentziaz erantzungo dion dirulaguntzen deialdi bat izatea.	LORTUA
1.2 Lankidetzaren Sailaren Gizarte-Eraldaketa Hezkuntza lana indartzea, Donostiako lankidetzaren sektorearekin koordinatuta eta plan honen printzipioei erantzunez.	PARTZIALKI LORTUA
1.3 Donostiako Udalak Saharako eta Palestinako herriei eta errefuxiatu eta desplazatuak duen konpromisoari, eta ematen dien babesari, eustea.	IA LORTUA
1.4 Donostiako Udalaren lankidetzaren indartzea jarraitzea, Euskal Fondoan aktiboki parte hartuz.	IA LORTUA
1.5 Etengabeko ebaluazio eta ikaskuntza dinamikak txertatzea Udalak bultzatutako lankidetzaren politika gauzatzeko orduan.	LORTU GABEA
2. ARDATZ ESTRATEGIKOA	
GIZA GARAPEN JASANGARRIAREN IKUSPEGIA ETA LANKIDETZA-POLITIKA BIDERATZEN DUTEN PRINTZIBIOAK DONOSTIAKO UDALAREN POLITIKA ETA EKINTZA GUZTIETAN MODU KOHERENTEAN INTEGRATZEA SUSTATZEA.	
2.1 Donostiako Udalak lankidetzaren politikekin duen aurrekontu-konpromisoa indartzea.	LORTUA
2.2 Informazioaren, gardentasunaren, kalitatearen eta kudeaketaren etengabeko hobekuntzaren printzipioei erantzungo dien lankidetzaren politika gauzatea.	LORTUA
2.3 Politikak Donostiako Udalaren Giza Garapen Jasangarriaren ikuspegiarekin koherenteak izan daitezkeen bultzatzea. DIAGNOSTIKATZEA	LORTUA
2.4 Politikak Donostiako Udalaren Giza Garapen Jasangarriaren ikuspegiarekin koherenteak izan daitezkeen bultzatzea. JAKITEA	PARTZIALKI LORTUA
2.5 Politikak Donostiako Udalaren Giza Garapen Jasangarriaren ikuspegiarekin koherenteak izan daitezkeen bultzatzea. EGITEA	LORTU GABEA

3. ARDATZ ESTRATEGIKOA KOORDINAZIOA ETA TOKIKO ALIANTZAK ETA ALIANTZA GLOBALAK INDARTZEA, GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAREN ETA ELKARTASUNAREN EREMUAN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN ARTEAN.	
3.1 Lankidetzeta-Kontseilua indartzea, Donostiako lankidetzeta-organizazioek udal politikan parte hartzeko organo nagusi gisa.	LORTUA
3.2 Euskadiko GGKEen Koordinakundearen lana indartzen jarraitzea, bereziki Donostiako egoitzan.	LORTUA
3.3 Beste administrazio eta eragile batzuekiko koordinazioa eta sinergien sorrera hobetzea.	PARTZIALKI LORTUA
3.4 Sektoreko organizazioen arteko ezagutza-trukea eta aliantzak indartzea, baita beste eragile batzuekin duten lotura ere, hala nola gizarte-mugimenduekin, hezkuntza-arloarekin eta ekonomia sozial eta solidarioarekin.	LORTUA

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA

LANKIDETZARAKO ETA GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZARAKO (GEH) EREDU KRITIKO ETA ERALDATZAILEA BULTZATZEN JARRAITZEA, GIZARTE BIDEZKOAGOAK, ZUZENAGOAK, KONPROMETITUAGOAK ETA SOLIDARIOAGOAK LORTZE ALDERA, IPARRALDEAREN ETA HEGOALDE GLOBALAREN ARTEKO LOTURA INDARTUZ.

EKINTZA-LERROAK	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	BETETZEA
<p>1.1 PLAN HONEN IKUSPEGIARI KOHERENTZIAZ ERANTZUTEN DION DIRULAGUNTZEN DEIALDI BAT IZATEA.</p>	<p>1.1.1. Deialdien oinarriak eta baremazio-irizpideak berrikustea eta Plan honetara egokitzea.</p> <p>1.1.2. Laguntza-lerroetan emandako ebazpenek Plan honi koherentziaz erantzuten diotela bermatzea.</p>	<p>LORTUA</p>
<p>BALORAZIOA</p>	<p>IV. Plan honetan inplikaturako eragileekin egindako bileretan ikusi ahal izan zenez, deialdiak onarpen handia du. Kontseiluan parte hartzen dutenek deialdia etengabe berrikusi eta onartzen dutenez, organizazioek dirulaguntzen deialdia bereganatzen dute. Hori bai, betiere sektoreko organizazioen hobekuntza-proposamenekin.</p> <p>Oinarriak bi hizkuntzetara itzuli dira, eta urtero egokitu dira planaren arabera. Azpimarratu da talde teknikoak eta sektoreak tresna erabilgarri eta gardentzat jotzen dituztela oinarriak. GEHko eta Lankidetzako proiektuetarako baremazio-taula koherentea da Planaren irizpideekin, eta onartutako proiektuak Udalaren lankidetzaren-ereduarekin lerrotatuta daudela ziurtatzen du. Hala ere, Planak planteatzen duen koherentzia-arloan sakondu behar da. Sektoreak positiboki baloratzen du izaera parte-hartzailea eta oinarriak Kontseiluaren bidez egokitzea.</p> <p>Oro har, kudeaketan ahalegin parte-hartzaile eta gardena antzematen da, nahiz eta oraindik ere badauden erronkak, hala nola: oinarriak gehiago sinplifikatzea, proiektuetarako aurrekontua handitzea, etab.</p>	

<p>1.2 LANKIDETZA SAILAREN GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZALANA INDARTZEA, DONOSTIAKO LANKIDETZA-SEKTOREAREKIN KOORDINATUTA ETA PLAN HONEN PRINTZIOEIEI ERANTZUNEZ.</p>	<p>1.2.1. Plan honen printzipioak betetzen dituzten GEHren jarduerak gauzatzea.</p> <p>1.2.2. Donostia Mundu Artean tresna hobetzea, haren erabilera errazteko eta haren inpaktua handitzeko.</p> <p>1.2.3. Bidezko Merkataritza eta Kontsumo Kontziente eta Arduratsua babesten jarraitzea.</p>	<p>PARTZIALKI LORTUA</p>
<p>BALORAZIOA</p>	<p>Planaren ekintza-lerro honetan proposatutako hiru ekintzak partzialki bete dira edo ez dira guztiz bete. GEHko jarduerari dagokienez, gutxi gorabehera urtero egin dira, nahiz eta, kasu batzuetan, ez den planean planifikatutako guztia bete. Horrek agerian uzten du zaila eta beharrezkoa dela urtean GEHri buruzko bost jarduera planifikatzeko xedea berrikustea.</p> <p>Urte bakar batean ere aurrera egitea lortu ez den arlo bat hau da: jardueretara bertaratzen den jende-kopurua eta jardueren balorazioa, bertaratzea kontrolatzeko eta inpaktua ebaluatzeko elementu berriak inplementatzea barne. Alderdi hori hurrengo Planerako utzi da.</p> <p><i>Donostia Mundu Artean</i> tresnaren hobekuntzari dagokionez, garapenean aurrera egin ez bada ere, sektoreko organizazioek oso positiboki baloratzen dute haren erabilgarritasuna.</p> <p>Bestalde, Bidezko Merkataritza eta Kontsumo Kontziente eta Arduratsua babesteari lotutako guztia arrakastaz bete da, Planean ezarritakoaren arabera.</p>	
<p>1.3 DONOSTIAKO UDALAK SAHARAKO ETA PALESTINAKO HERRIEKIN ETA ERREFUXIATU ETA DESPLAZATUEKIN DUEN KONPROMISOARI, ETA EMATEN DIEN BABESARI, EUSTEA.</p>	<p>1.3.1. Saharako eta Palestinako eremuetan gauzatu beharreko ekimenak babestea, eta gauza bera egitea populazio babestua eta desplazatuta duten tokietan.</p> <p>1.3.2. Oporrak Bakean Programatik eta saharar herriari ematen zaizkion beste laguntza batzuetatik ikastea, ebaluazioaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspuntutik.</p>	<p>IA LORTUA</p>
<p>BALORAZIOA</p>	<p>Donostiako Udalak Saharako eta Palestinako herriekin eta beste gatazka batzuek eragindako errefuxiatu eta desplazatuekin duen konpromisoa eztabaidaezina da. Plan honen bidez, Udalak aspalditik kausa horien alde egiten dituen ekintzei eustea eta jarraipena ematea lortu da nagusiki.</p> <p>Hala ere, aurretiazko ebaluazioan Plan honen aplikazioan inplementatu ez diren alderdiak identifikatu ziren. Horien artean, Saharako herriarekiko lankidetzaren azken 15 urteak ebaluatzea, bai eta genero-ikuspegia txertatzeko orientabideak sartzeari. Ebaluazio-prozesu zabalagoak eta sistematikoagoak egiteko beharra ere</p>	

	<p>nabarmendu zen, Saharako eta Palestinako herriei ematen zaizkien laguntzak berrikusi eta hobetu ahal izateko, haien eragina handiagoa izan dadin. Gai horiek aurreko Planaren ebaluazioan planteatu ziren jada.</p> <p>Berrikusi beharreko beste alderdi bat <i>Oporrak Bakean</i> Programa da. Udalak ekimen hori bultzatzen du saharar herriari laguntzeko. Funtsezkotzat jotzen da jarduera horren ebaluazio zehatza egitea, bai talde teknikoaren partetik, bai sektoreko organizazioen partetik. Ildo horretatik, ez da ikaskuntza esanguratsurik atera programatik, ezta Saharako eta Palestinako herriei lotutako beste jarduera batzuetatik ere, Plan honetan proposatu zen bezala. Eta programa horrekin dauden zailtasunek bere horretan jarraitzen dute.</p> <p>Laburbilduz, helburua ez da mugatu behar laguntza bat, besterik gabe, mantentzera, baizik eta laguntza hori eraginkorra eta efizientea dela eta etengabe berrikusten dela bermatzera, etengabe egokitu eta hobetu ahal izateko.</p>	
<p>1.4 DONOSTIAKO UDALAREN LANKIDETZA INDARTZEN JARRAITZEA, EUSKAL FONDOAN AKTIBOKI PARTE HARTUZ.</p>	<p>1.4.1. Euskal Fondoan modu aktiboan parte hartzea.</p> <p>1.4.2. Lagundutako proiektuek Plan honen ikuspegiarekin bat datozela bermatzea.</p>	<p>IA LORTUA</p>
<p>BALORAZIOA</p>	<p>Donostiako Udalak Euskal Fondoaren parte izaten jarraitzen du, eta bileretara joateko eta ezarritako aurrekontu-ekarpena bermatzeko konpromisoari eusten dio. Hala ere, aurreko planean bezala, oraindik ere zailtasunak daude parte hartzeko moduei eta inplikazioaren balorazio kualitatiboari dagokienez.</p> <p>Talde teknikoak inertzia-sentsazioa sumatzen du, eta ez da aldaketa esanguratsurik egin Euskal Fondoan parte hartzeko moduan. Hautatutako proiektuak Plan honetan zehaztutako irizpideetara egokitzen badira ere, horien jarraipena eta balorazioa ez dira nahikoak izan. Izan ere, azken lau urteotan ez da jarraipen-bidaiarik egin proiektu horiek ebaluatzeko, eta lankidetzaren teknika oso txikia izan da.</p> <p>Defizit hori ez da Euskal Fondora mugatzen, beste erakunde batzuekiko harremanetan ere islatzen da, 3. ardatz estrategikoan zehazten den bezala.</p> <p>Laburbilduz, Euskal Fondoan izandako parte-hartzea oinarrizko alderdietara murriztu da: aurrekontu-ekarpena, bileretara noizean behin joatea eta proiektu jakin batzuei laguntza emateko proposamena. Ez da zalantzan jartzen erakunde horrekiko konpromisoa, ezta eman nahi zaion babesa ere, baina beharrezkoa da parte-hartze moduak birplanteatzea eta indartzea.</p>	

<p>1.5 ETENGABEKO EBALUAZIO ETA IKASKUNTZA DINAMIKAK TXERTATZEA UDALAK BULTZATUTAKO LANKIDETZA-POLITIKA GAUZATZEKO ORDUAN.</p>	<p>1.5.1. Ikuspegi lokala/globala integrazteko esperientziak ezagutzea.</p> <p>1.5.2. Udal lankidetzako beste esperientzia batzuetatik garatutako beste tresna berritzaile batzuen gaineko ezagutza zabaltzea.</p>	<p>LORTU GABEA</p>
<p>BALORAZIOA</p>	<p>Jarduera-lerro hori da okerren gauzatu dena, ez baita planean ezarri bezala inplementatu. Kronogramaren arabera, lerro horretarako programatutako bi ekintzak 2023an eta 2024an gauzatu behar ziren, baina ez ziren gauzatu. Bi urteetako Urteko Plan Operatiboetan sartuta bazeuden ere, behin eta berriz atzeratu dira. Talde teknikoak azaldu duenez, eguneroko beste lehentasun batzuek tokia kendu diete ekintza horiei, eta azken urtean langile gutxiago izateak are gehiago zaildu du haiek gauzatzea.</p>	

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA

GIZA-GARAPEN JASANGARRIAREN IKUSPEGIA ETA LANKIDETZA-POLITIKA BIDERATZEN DUTEN PRINTZIBOAK DONOSTIAKO UDALAREN POLITIKA ETA EKINTZA GUZTIETAN MODU KOHERENTEAN INTEGRATZEA SUSTATZEA.

EKINTZA-LERROAK	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	BETETZEA
2.1 DONOSTIAKO UDALAK LANKIDETZA-POLITIKEKIN DUEN AURREKONTU-KONPROMISOA INDARTZEA.	2.1.1. Gutxienez, Udalak lankidetzeta-politikekin duen aurrekontu-konpromisoari eustea. 2.1.2. % 0,7 lortzeko bidean aurrera egitea. 2.1.3. Gardentasuna eta informaziorako sarbidea bermatzeko neurriak ezartzea.	LORTUA
BALORAZIOA	<p>Urteko aurrekontua memorietan eta Udalaren webgunean argitaratzen da, eta Kontseiluari aurkezten zaio urtero. Talde teknikoak positibotzat jotzen du aurrekontua mantentzea eta handitzea Planak dirauen lau urteetan, baina planteatzen du oraindik plangintza estrategiko argia falta dela lankidetzara bideratutako % 0,7ko helburua lortzeko. Igoera horiek urteko negoziazio indibidualen ondorio izan dira, eta horrek segurtasunik eza eragiten du etorkizuna dela-eta. Aurreikusitako adierazleak bete diren arren, oraindik ere zalantzak daude, ez delako helburu historiko horretara iritsi estrategia progresibo eta egutegiaren arabera batekin, konpromiso politiko irmo baten babesa duen batekin. Eta zalantza horiek sektoreko organizazioek bereganatzen dituzte, eta 2025erako, Kontseiluaren aurrekontu-taldearen bidez, legegintzaldiaren amaierara % 0,7ra iristeko deialdia egiten dute, datozen hiru urteetarako proposamen zehatz baten bitartez.</p> <p>Udalaren aurrekontu propio bateratuari dagokionez azken 4 urteetan izandako aurrerapena aztertuz gero, urtero ehunen bat igo da; 2021ean % 0,45 eta 2024an, % 0,48. Horrek erakusten du Udalak hartutako konpromisoa oso urrun dagoela.</p> <p>Bestalde, funtzionamendu-kostuak aurrekontua dela-eta, doitutzat eta egonkortzat jotzen dira, arazo handirik sortu gabe, hitzarmenetara eta zuzeneko ekintzetara bideratutako kontu-sailak bezala. Hala ere, aurrekontu-negoizazioaren prozesua kritikatu egiten da hain parte-hartzailea ez delako. Egoera horrek agerian uzten du konpromiso politiko handiagoa eta baterako lana behar direla, aurrera egiteko, planteatutako helburuak lortze aldera.</p> <p>Zentzu horretan, egoera aurreko ebaluazioan planteatutakoaren antzekoa da oso.</p>	

	Urteko Plan Operatiboen segimendua egin da. Bertan, Planaren segimendua eta memoriak jasotzen dira. Informazioa urtero ematen da Kontseiluan.	
2.2 INFORMAZIOAREN, GARDENTASUNAREN, KALITATEAREN ETA KUDEAKETAREN ETENGABEKO HOBEKUNTZAREN PRINTZIBIOEI ERANTZUTEN DIEN LANKIDETZA-POLITIKA GAUZATZEA.	<p>2.2.1. Lankidetzeta-politikaren garapenari buruzko jarraipen-memoriak egitea eta webgunean eskuragarri jartzea.</p> <p>2.2.2. Webgunea eta sare sozialak eguneratuta edukitzea, udal lankidetzarako politikarako garrantzitsua den informazio guztiarekin.</p> <p>2.2.3. Kalitate-proiektuen jarraipen-sistema edukitzea.</p> <p>2.2.4. Talde teknikoaren gaitasunak indartzea.</p>	LORTUA
BALORAZIOA	<p>Ekintza-lerro hori lortu bada ere, oraindik badira hobetu daitezkeen alderdiak. Oro har, aurreikusitako ekintzak bete dira, memoriak egitea eta webgunearen bidez zabaltzea barne. Hala ere, webgunearen edukia aberasteko eta maizago eguneratuta izateko beharra identifikatu da. Gainera, ia ez zabaltzen sare sozialen bidezko informaziorik, eta horrek komunikazioaren irismena mugatzen du. Egoera hori are larriagoa da talde teknikoaren murrizketagatik; izan ere, orain pertsona bat gutxiago du, eta ez da argi ikusten ordeztuko den ala ez. Horrek arriskuan jartzen du taldea indartzeko lana eta bere eginkizunak eraginkortasunez betetzeko gaitasuna.</p> <p>Proiektuen jarraipenari dagokionez, behar bezala gauzatu bada ere, oraindik ez dira sartu elementu berritzaileak eta kalitatekoak. Beste gai batzuk lehenesteko beharrak hobekuntza horiek alboratu ditu, eta inplementatzea zaildu. Eta proiektuen jarraipena egiteko bidaiaren bat egin bada ere, 2022an Kubara eta 2024an Saharara, Euskal Fondoak antolatuta, garrantzitsua da talde teknikoak jarraipen mota hori in situ egiteko aukera gehiago izatea.</p>	
2.3 POLITIKAK DONOSTIAKO UDALAREN GIZA-GARAPEN JASANGARRIAREN IKUSPEGIAREKIN KOHERENTEAK IZAN DAITEZEN BULTZATZEA.	2.3.1. Galdera zehatzen sorta baten bidez, aztertzea Udalaren hiru politika espezifiko (eremu sozial, ekologiko eta ekonomikoko politikak) Giza-Garapen Jasangarriaren ikuspegiarekin duten koherentzia-maila.	

DIAGNOSTIKATZEA	<p>2.3.2. Jakitea zer lan egiten duten udal sail batzuek nazioarteko elkartasunaren alorrean.</p> <p>2.3.3. Dirulaguntza-lerroetan finantzaturako proiektuetan lan egiten duten organizazioen errealtateen eta eskaeren berri jakitea.</p>	LORTUA
BALORAZIOA	<p>Donostiako Udalaren Giza-Garapen Jasangarriaren ikuspegia duten politiken koherentziari lotutako jarduerak inflexio-puntu bat dira orain arte egindakoaren aldean. Hala ere, pentsa daiteke planteaturako irismena handiegia izan zela; izan ere, ekintza horiek 4 urtean gauzatzeko, erronka ugari erantzun behar zaio. Gaia konplexua da, batetik, Udaleko beste arlo eta atal batzuekin koordinatu behar delako, eta, bestetik, ekintzen izaeratik; izan ere, sailen arteko lankidetzak eta zehaztasuna eskatzen dute, baina, batez ere, konpromiso politikoa.</p> <p>Alor horretan aurrera egiteko funtsezko elementua Kontseiluaren koherentzia-taldea sortzea izan zen, gaia gidatu eta jarraipena egiteko aukera eman baitzuen. Hala ere, garrantzitsuena Berdintasun, Elkartasun eta Eskubide Zibilen Zinegotzigoko sailetan <i>Giza Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentziari buruzko Diagnostikoa</i> edukitzea izan zen, Lankidetzak Kontseiluak sustatua. Diagnostiko hori funtsezko tresna da gai horiek Udalaren hurrengo planetan kontu hauek zehazten jarraitzeko, etorkizuneko plangintzarako oinarri sendoa ezarri.</p>	
2.4 POLITIKAK DONOSTIAKO UDALAREN GIZA-GARAPEN JASANGARRIAREN IKUSPEGIAREKIN KOHERENTEAK IZAN DAITEZEN BULTZATZEA. JAKITEA	<p>2.4.1. Gai espezifikoak lantzeko aurkezpen, prestakuntza edo esparruen bidez, Giza-Garapen Jasangarriaren ikuspegiari buruzko ezagutzak eta Udaleko langileen Plan honen printzipioak hobetzea.</p> <p>2.4.2. Gutxienez, trukerako esparru bat antolatzea, beste udalari edo administrazio batzuekin politika koherenteak izateko estrategiak garatzeko beste esperientzia batzuk ezagutze aldera.</p>	PARTZIALKI LORTUA
BALORAZIOA	<p>2022an, udal langileei prestakuntza eman zitzaion Giza-Garapen Jasangarrirako Politika Publikoari buruz, Mugarik Gabe eta Colectiva XXX-k antolatuta. Baina hau ere egin zen: Lankidetzarako Udal Kontseiluko Politiken Koherentziako lantaldearekin eta Kualitate Aholkulariarekin egindako bilera bat, Lankidetzak eta Ekonomia-Garapeneko Organizazioa izeneko tresna lankidetzak deszentralizatura egokitzeari buruz. Hala ere, planteatu da eraginkorragoa izango zela urte horretan bertan hasitako diagnostikoa amaitzen hastea (haren emaitzak ez</p>	

	<p>ziren 2023ra arte aurkeztu). Datu horiek lehendik izanez gero, prestakuntzak modu enfokatuago eta eraginkorragoan diseinatu zitezkeen.</p> <p>2024ko irailean, beste prestakuntza bat egin zen, baina ez udal langileentzat zuzenean: politiken koherentzia-taldeak arduradun politikoak gaitzea lehenetsi zuen. Horrek agerian uzten du planak ezartzerakoan garrantzitsua dela nolabaiteko malgutasuna izatea, sortuz joaten diren beharizanen arabera doikuntzak, aldaketak eta inprobisazioak ahalbidetzeko. Plan batek gida egituratua izan behar du, baina testuinguru dinamikoetara egokitzeko gaitasuna ere behar du.</p> <p>Hala ere, ez zen aurrerapenik lortu beste administrazio edo udalerrri batzuekin koherentzia politikoko estrategiei buruzko esperientziak trukatzeko esparru bat antolatzeko ahaleginean. Gabezia horrek beste organizazio batzuekiko elkarreraginak eta lankidetzak dituen zailtasunak islatzen ditu. Hori oraindik erantzun gabeko erronka da, eremu horretan sinergiak eta baterako ikaskuntzak gauzatzea mugatzen duena.</p>	
<p>2.5 POLITIKAK DONOSTIAKO UDALAREN GIZA-GARAPEN JASANGARRIAREN IKUSPEGIAREKIN KOHERENTEAK IZAN DAITEZEN BULTZATZEA. EGITEA</p>	<p>2.5.1. Adierazleen diagnostikoaren arabera, gutxienez ekintza bat hautatu behar da aztertutako sailaren batekin gauzatzeko.</p> <p>2.5.2. Gizarte-Eraldaketarako Hezkuntza ekintzak beste sail batzuekin batera antolatzea, hala nola kultura, dibertsitatea eta berdintasuna.</p> <p>2.5.3. Udalaren barruan, gizarte-klausulak eta kontsumo kontzientea eta arduratsua bezalako tresnak sustatzea eta horien jarraipena egitea.</p>	<p>LORTU GABEA</p>
<p>BALORAZIOA</p>	<p>Ilido horretan planteatutako ekintzek, Udaleko hainbat arlo eta sekziorekin lotuta daudenez, zailtasunak izan dituzte beste arlo eta atal batzuekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko (hainbat arrazoiengatik), eta horrek eragotzi egin du ekintza horiek guztiz gauzatzea. Horren ondorioz, EGITEAn oinarritutako ekintza-lerro hori osatu gabe eta lortu gabe dago. Beste talde batzuekin lan egitearen konplexutasuna eta sailen arteko kohesiorik eza, besteak beste, faktore erabakigarriak izan dira zentzu horretan.</p> <p>Garrantzitsua da nabarmentzea koherentzia politikoari lotutako helburuek, Plan honetan planteatu zen bezala, lau urte baino gehiago behar dituztela benetan inplementatzeko. Guztiz gauzatzeko, Udalaren konpromiso politiko erreal eta etengabe bat behar da, bai eta barne-lankidetzaren erronkak gainditzeko borondate handiago bat eta kanal gehiago ere.</p>	

3. ARDATZ ESTRATEGIKOA

KOORDINAZIOA ETA TOKIKO ALIANTZAK ETA ALIANTZA GLOBALAK INDARTzea, ELKARTASUNAREN ETA GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAREN EREMUAN INPLIKATUTAKO ERAGILEEN ARTEAN.

EKINTZA-LERROAK	AURREIKUSITAKO EKINTZAK	BETETZEA
<p>3.1 LANKIDETZA-KONTSEILUA INDARTZEA, DONOSTIAKO LANKIDETZA-ORGANIZAZIOEK UDAL POLITIKAN PARTE HARTZEKO ORGANO NAGUSIA DEN ALDETIK.</p>	<p>3.1.1. Kontseiluaren urteko lan-planak egitea.</p> <p>3.1.2. Esparru horretan parte-hartzea kalitatekoa izateko baldintza egokiak sortzea.</p> <p>3.1.3. Elkarrizketarako esparruak ezartzea Kontseiluko lantalde espezifikoekin</p>	<p>LORTUA</p>
<p>BALORAZIOA</p>	<p>Udalaren Lankidetzak Kontseiluak oso osasun ona du. Inplikaturako eragile guztiek –politikariek, teknikariek nahiz sektoreko organizazioek– oso modu positiboan baloratzen dute haren lana. Are gehiago, kanpoko eragileek Donostiako Udalaren Kontseilua erreferentetzat hartzen dute.</p> <p>Haren ibilbide luzeari esker, parte hartzeko esparru horrek bere historian zehar egokitzen jakin du, zenbait alderdi moldatuz, hala nola antolamendua, bileren prestaketa eta lantaldeen dinamika. Hala ere, edozein eremutan bezala, beti dago hobetzeko tartea.</p> <p>Sektoreko organizazioek planteatzen dute beharrezkoa dela parte hartzeko esparru horrek erabakitze ahalmen handiagoa izatea eremu politikoan, baina eskaera hori ez dute beti partekatzen instantzia politikoek, Udalaren barne-funtzionamenduarekin lotutako mugak argudiatzen baitituzte.</p> <p>Hobetu beharreko beste alderdi bat kontseiluetan parte hartzea da, nahiz eta ekintza batzuk jada inplementatu diren. Joera dago askotan pertsona eta organizazio berak izateko esku hartzen dutenak, eta horrek, nolabait, berrikuntza gutxi izatea eragiten du, eta, gainera, batzuetan, genero-alborapena ere eragiten du. Hala ere, partaidetza askotarikoagoa sustatzeko neurriak jarri dira abian, emakumeen parte-hartzea aktiboki sustatzeko eta ordezkariak ekitatiboagoa bermatzeko.</p>	

<p>3.2 EUSKADIKO GGKE-EN KOORDINAKUNDEAREN LANA INDARTZEN JARRAITZEA, BEREZIKI DONOSTIAKO EGOITZAN.</p>	<p>3.2.1. Koordinakundeak Donostian duen egoitza mantentzen laguntzea.</p> <p>3.2.2. Udalaren eta Koordinatzailearen arteko elkarrizketarako esparruak sortzea.</p>	<p>LORTUA</p>
<p>BALORAZIOA</p>	<p>Koordinatzaileari laguntza ematen jarraitu da, eta hori hitzarmen baten bidez zehaztu da. Hitzarmen horrek koordinatzailearen funtzionamenduaren zati bat finantzatzen du, eta <i>Zero Pobrezia</i> bezalako kanpainak babesten ditu. Hitzarmen horren esparruan, biltzeko gune bat irekitzen da urtero, sektorearen egoerari eta, bereziki, hitzarmenaren garapenari buruzko informazioa trukatzeko.</p> <p>GGKEen Koordinatzailearekin sinatutako hitzarmenari esleitutako zenbatekoak bere horretan jarraitu du azken lau urteotan. Laguntza hori funtsezko tresnatzat jotzen da Planaren indarraldian elkarrizketa eraginkorra indartzeko eta bermatzeko.</p> <p>Hala ere, Koordinatzailearen eta lantalde teknikoaren arteko topaketen eta komunikazio-kanalen aldizkakotasunak interakzio arinagoa eta sarriagoa izan lezakeela uste da, baina betiere oinarria sendoa dela kontuan hartuta.</p>	
<p>3.3 BESTE ADMINISTRAZIO ETA ERAGILE BATZUEKIKO KOORDINAZIOA ETA SINERGIEN SORRERA HOBETZEA.</p>	<p>3.3.1. Erakundeen arteko koordinazio-esparru desberdinetan parte hartzea.</p> <p>3.3.2. Eskualdeko edo munduko beste foro eta sare batzuetan parte hartzea aztertzea.</p>	<p>PARTZIALKI LORTUA</p>
<p>BALORAZIOA</p>	<p>Ekintza-lerro hori ahulena da hirugarren ardatz estrategiko honen gainerako lerroekin alderatuta. Plana indarrean egon den bitartean, beste erakunde batzuekin partekatutako esparruetan parte hartzen jarraitu da, hala nola eLankidetzak bultzatutako (<i>H)abian</i> prozesuan edo <i>Euskal Fondoan</i>.</p> <p>Hala ere, deigarria da hurbileko beste erakunde batzuekiko (baita kidesun politikoa dutenekiko ere, hala nola Gipuzkoako Foru Aldundia) interakzioa ia hutsala izatea lankidetzaren arloan. Hori bereziki nabarmena da bi erakundeek Gipuzkoa bezalako probintzia txiki batean jarduten dutela kontuan hartuta.</p> <p>Gainera, urte batzuetan, eskualdeko edo munduko foroetan eta sareetan parte hartzeari lotutako jarduerak ez dira gauzatu, Planean aurreikusita zegoen bezala, eta zeregin hori partzialki egiteke gelditu da; hurrengo Planean helduko zaio.</p>	

<p>3.4 SEKTOREKO ORGANIZAZIOEN ARTEKO EZAGUTZA-TRUKEA ETA ALIANTZAK INDARTZEA, BAITA BESTE ERAGILE BATZUEKIN DUTEN LOTURA ERE, HALA NOLA GIZARTE-MUGIMENDUEKIN, HEZKUNTZA-ARLOAREKIN ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREKIN.</p>	<p>3.4.1. Organizazioek partzuergo-moduan, dirulaguntzen lerroetan, egiten duten lana babesten jarraitzea.</p> <p>3.4.2. Plan honen printzipioekin eta/edo Donostiako elkartasun-agendarekin lotutako gai espezifikoetarako buruzko truke eta hausnarketa esparruak sustatzea.</p>	<p>LORTUA</p>
<p>BALORAZIOA</p>	<p>Oinarriek tokiko GKEen artean partzuergoak sortzea sustatzen jarraitzen dute. Talde teknikoak eta sektoreko organizazioek positiboki baloratzen dute ekimen hori, kontuan hartuta partzuergoek aukera ematen dietela organizazio txikiei dirulaguntzen lerroan parte hartzeko eta Donostiako organizazioen arteko baterako lana sustatzen dutela.</p> <p>Plana indarrean egon den urteetan, 2021ean 9 izan ziren (2 lankid. + 7 GEH), 2022an 7 (1 lankid. + 6 GEH), 2023an 6 (1 lankid.+ 5 GEH) eta 2024an asko igo ziren: 12 (2 lankid +10 GHE).</p> <p>Gainera, azpimarratu da parte hartzeko esparruek, hala nola Kontseiluak, organizazioen arteko elkar ezagutzea eta lankidetzaren errazten dituztela. Baina, aldi berean, IV. Plan honekin eta Donostiako elkartasun-agendarekin lotutako gaietarako buruzko truke eta hausnarketarako esparru gehiago behar direla planteatzen da.</p>	

ONDORIO OROKORRAK

Hemen, Donostiako Udalaren Gizarte Eraldaketarako Lankidetzaren eta Hezkuntzako IV. Gida Planaren (2021-2024) azterketatik eratorritako ondorio orokor batzuk aurkezten dira:

- ❖ IV. Plana pandemiak markatutako **testuinguru** berezi batean sortu eta diseinatu zen. Hala ere, testuinguru horrek ez zuen nabarmen baldintzatu Planaren inplementazioa.
- ❖ Plan honen azterketak **antz handia du hirugarren Planaren ebaluazioarekin**, metodologian azaldu den bezala. Hori bai, betiere bien arteko alderdi baliokideak alderatzeko helburuarekin. Adibidez, ondorio batzuk mantentzen direla detektatzeko balio du, aurreko ebaluazioan jada lortu ziren eskaerak. Ebaluazio horiek tresna erabilgarriak izan nahi dute planak epe ertain eta luzeko prozesuen barruan kokatzeko, diseinuan planteatzen den bezala. Horrela, saihestu egiten da planak ekimen isolatutzat hartzea, modu independentean funtzionatuz, elkarren artean inolako loturarik ez duten konpartimentu estankoak balira bezala.
- ❖ **Plan hori** testuingurura egokitzeko eta Udalaren eta lankidetzaren sektorearen beharrei erantzuteko **diseinatu zen**. Plangintzak, modu parte-hartzailean gauzatuak eta inplikaturako eragileek lagunduak, Plana behar bezala asimilatzen eta bereganatzen lagundu zuen. Gainera, IV. Plan hori **egitura** argiagatik nabarmendu zen; hiru multzo handitan antolatuta zegoen: lehenik eta behin, Planaren oinarri den esparru kontzeptuala. Bigarrenik, proposaturikoa inplementatzeko beharrezko tresnak. Azkenik, hiru apustu estrategikoak, bakoitzak bere ekintza-lerroekin. Horren ondorioz, Plana dokumentu argi, ordenatu eta ulerterraztat hartu zen.
- ❖ Ondo baloratutako eta adostutako alderdiekin jarraituz, Garapenerako Lankidetzaren eta Hezkuntzaren Udal **Kontseilua** nabarmentzen da: parte hartzeko esparru bat, eragile guztiek onartzen eta baloratzen dutena. Are gehiago, erreferentziatzen hartzen dute Udaleko beste arlo eta sail batzuek, baita beste administrazio batzuek ere. Hala ere, ebaluazio honetan egindako partaidetza-esparruen azterketan adierazi zen bezala, hobetu daitezkeen alderdiak ere badaude, hala nola parte hartzeko moduak, genero-alborapena, eta abar. Baina, agian, eztabaidarik garrantzitsuena Kontseiluak izan beharko

lukeen –edo ez– erabakitzeko gaitasunari buruzkoa da. Gai hori lehenago ere planteatu da.

- ❖ Udaleko **talde teknikoak** konfiantza osoa izaten jarraitzen du, bai politikarien aldetik, bai sektoreko organizazioen aldetik, eta haien lana, prestasuna eta konpromisoa nabarmentzen dituzte. Hala ere, ebaluazio honetan, balorazio positibo horiek bigarren planoan geratu dira; izan ere, talde teknikoak berak eta sektoreko organizazioek kezka adierazi dute taldea zer egoeratan dagoen. Gaur egun, pertsona batek gutxiagok lan egiten du taldean, eta horrek lan-karga handiagoa dakar berekin, eta ziurgabetasuna sortzen du, epe laburrera irtenbiderik ikusten ez dutelako. Egoera horrek kezka sortzen du, IV. Planaren exekuzioaren azken zatian eta hurrengo Planaren plangintzan eta exekuzioan izango duen eraginagatik.
- ❖ IV. Planak **adostasun zabala eta balorazio oso positiboa** du zuzenean inplikaturako eragileen aldetik, hala nola talde teknikoaren, sektoreko organizazioen eta Udaleko politikarien aldetik. Funtsezko elementuetako bat izan zen Plana eragileek parte hartuta sortu zela. Horren ondorioz, lotura bat sortu zen Planarekin. Gainera, kanpoko eragileek ere harrera ona egin diote, hala nola eLankidetzak. Batzuek zein besteek positiboki nabarmentzen dute **Politiken Koherentzia** ardatz estrategiko gisa txertatzea: aurreko planetik inflexio-puntutzat hartzen dute, eta *anbizio handikotzat* ere jotzen dute, hitzaren zentzu onean.

Hala ere, nabarmena da apustu estrategiko berri honetan ezarritako helburuak gauzatzeko zailtasuna. Pertzepzio orokorraren arabera, konplikaziorik handienak Planean txertaturako Politiken Koherentziarekin lotutako proposamenak zehaztu eta gauzatzeko mementoan sortu ziren.

Hala eta guztiz ere, aurrerapenak egin dira, hala nola Berdintasun, Elkartasun eta Eskubide Zibilen Zinegotzigoaren mendeko arloek egindako Politiken Koherentziari buruzko Txostena (2023), norabide horretan aurrera egiten jarraitzeko oinarria eskaintzen duena. Txosten hori urrats garrantzitsua da erabakigarria den plan bati heltzeko, erronka esanguratsuak planteatzen dituela kontuan hartuta.

Inplikaturako eragileek ondorioztatu dute zailtasun horiek bi faktoreri lotuta daudela, batez ere: batetik, gaiaren izaera bera, konplexutasunez beteta baitago; eta, bestetik, Udaleko beste arlo eta atal batzuk inplikatuzeko beharra, erakundearen antolaketa-kulturak zeharkako lana sustatzen ez duen testuinguru batean. Sailen eta arloen arteko interkonexio-falta horrek, oso egitura

zaticatuaren ondorio denak, are gehiago zailtzen du proposamen horien implementazio eraginkorra.

- ❖ Udalak ez du bete, besteak beste, **aurrekontuaren % 0,7 lankidetzarako** erabiltzeko konpromiso historikoa. Plana indarrean egon den lau urteetan esleitutako funtsak handitu badira ere, proiektio batzuek adierazten dute gaur egungo erritmoan ia bi hamarkada igaro daitezkeela helburu hori lortu baino lehen.

Ebaluatutako planean, *% 0,7 lortzeko bidean aurrera egitea* erabaki zen, hori lortzeko konpromisoa hartu beharrean, eta hori hainbat modutan interpreta daiteke. Alde batetik, ikuspegi pragmatiko, errealista eta arrazionaletik, formulazio honen helburua atzerakadak saihestea eta aurrerabidea bermatzea da, motela bada ere. Bestalde, etsipen-seinale gisa ikus daiteke, eta baztertutako edo galdutako aldarrikapen gisa, edo, zuzenean, hartutako konpromisoa ez dela bete. Sektoreko organizazioak, Udal Kontseiluaren aurrekontu-taldearen bidez, ildo horretan eragiten ari dira, legegintzaldi honen amaierarako (2027) % 0,7ra iristeko konpromisoa har dadin. Hiru urtean, egungo % 0,48tik % 0,7ra igarotzea planteatzen dute.

- ❖ **Zuzeneko udal lankidetzak** berrikuspen sakon bat eta ebaluazio zehatz bat eskatzen ditu. Egungo ekimen eta hitzarmen gehienek Udalaren konpromiso historikoa islatzen badute ere, horietako asko urteak daramatzate implementatzen jarraipen egokirik gabe. Jarraipen horrek egungo testuinguruan duten eragina eta garrantzia baloratzeko aukera emango luke.

Plan honetan parte hartzen duten eragileek inertzia-sentsazioa antzematen dute ekimen horien kudeaketan, eta, horrekin batera, ebaluazio-falta ere bai, eraginkortasuna mugatzen duena. Hala ere, ez da inola ere planteatzen ekimen eta hitzarmen horiek desagitea edo ezabatzea, Donostiako herritarrek eta Udalak historikoki Saharako eta Palestinako herriekin, Euskal Fondoarekin eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin, besteak beste, partekatu duten konpromiso solidarioa dela-eta.

Hala ere, jarraipen eta ebaluazio sakonagoaren gabezia horrek eragotzi egiten du Udalen zuzeneko lankidetzak ahalik eta potentzial handiena lortzea eta modu eraginkorragoan egokitzea egungo testuinguruaren erronka eta premietara. Horrelako praktikak indartzeak haien eragina optimizatu lezake, eta egungo lehenetsunekin modu eraginkorragoan lerrokatzea berma lezake.

Ebaluazio eta jarraipen bidezko berrikusketa gehien eskatzen duen eremuetako bat Saharako eta Palestinako herriei laguntzeko ekimen eta hitzarmenak dira, baita *Oporrak Bakean* programa ere. Berriz ere azpimarratu behar da azterketa horrek ez duela esan nahi konpromiso faltarik dagoenik, ezta ekimen horiek ezabatzeko asmorik dagoenik ere, baizik eta hobetzeko, eguneratzeko eta egungo testuinguruaren erronka eta beharretara egokitzeko ahalegina egin behar dela.

Era berean, nahiz eta beste maila batean izan, funtsezkoa da jarraipen eta ebaluazio mekanismo hobeak ezartzea Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako ekimenetarako eta Udalak Euskal Fondoa bezalako organizazioetan parte hartzeko. Horrela, haien inpaktua maximizatzeko eta Planaren printzipioekin hobeto lerrokatuta daudela bermatzeko aukera emango lukeen azterketa sakon baten onurak izango lituzkete.

- ❖ **Dirulaguntzen deialdietan** sartutako modalitateei dagokienez, hala nola Garapenerako Lankidetzak, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH) eta Ekintza Humanitarioa, aurreko urteetan eta planetan ezarritako lan-lerroari eutsi zaio. Hau da, aurretik egiten ari zenaren jarraipena egin da. Nahiz eta beti proposatzen diren hobekuntzak, oinarrietan eta prozeduretan gauzatzeko, eta horietako batzuk egin egin diren, inplikaturako eragileek oso balorazio positiboa egin zuten IV. Planean jasotako jarduera-modalitate horiei buruz.

Era berean, oso positibotzat jotzen da ebaluatutako plan honek partzuergoen figura mantentzea eta sustatzea, bai Garapenerako Lankidetzarako, bai GEHrako.

- ❖ IV. Planaren **hiru ardatz estrategikoak, 14 ekintza-lerroekin** batera, funtsezkoak izan dira garapenerako gida gisa. Adierazleak eta kronograma bat txertatzea funtsezkoa izan da planteatutako ekintzen betetze-maila neurtzeko. Ildo horretatik, Urteko Plan Operatiboek funtsezko zeregina izan dute, baina hobetzeko arloak dituzte, txostenaren hurrengo atalean jorratuko direnak. Planaren lan egiteko modua zehazten duen dokumentu idatzi bat izateak, inplementazioa errazteaz gain, gardentasun-ariketa ere izan da. Ekintzak aurkezteko modu horri esker, inplikaturako eragileek egindako ekintzen jarraipen ordenatua egin ahal izan dute.

Gainera, IV. Plana herritarren eskura jarri da Udalaren webgunearen bidez. Horrek indartu egin du planaren izaera publikoa, eta interesdun orok kontsultatu ahal izan ditu haren proposamenak.

Metodologia horren argitasunak eta erabilgarritasunak erakutsi dute tresna baliotsuak direla, bai Planaren eraginkortasunerako, bai kontuak emateko. Hala, formatu hori etorkizuneko planetan jarraitu beharreko eredu bihurtu da.

- ❖ **Erakundeen arteko koordinazio-esparruetan** eta eskualde eta mundu mailako **foroetan** parte hartzeari dagokionez, aurrerapenak izan badira ere (adibidez, eLankidetzaren (H)abian ekimenean parte hartzea), gabezia handiak daude oraindik, hainbat arrazoiengatik.

Bereziki deigarria da Gipuzkoako Foru Aldundia bezalako erakundeekin elkarrizketa urria izatea. Harrigarria da, bi erakundeetan alderdi politiko bera gobernatzen ari bada ere, ia ez egotea erakundeen arteko koordinaziorik.

Gainera, Udalak foro eta sare desberdinetan duen parte-hartzea oso mugatua da. Horren arrazoa izan daiteke, batetik, esparru horien bilaketa aktibo eskasa, eta, bestetik, hainbat motibo izatea parte gehiago ez izateko.

Gai horiek Udalaren barne-mailara eramaten baditugu, agerian geratzen da erakunde barruko koordinazioak, bereziki politiken koherentziarekin zerikusia duten alderdietan, mugak dituela.

Hori, neurri handi batean, antolaketa-kulturari zor zaio, bertan lan-dinamikak departamentalizatuta daude-eta. Zerbait egin ahal izan zen lehen urrats gisa, – aurreko ebaluazioan gomendatu bezala– Kultura, Berdintasuna eta Aniztasunarekin, baina zailtasunak daude beste sail edo arlo batzuetan sartzeko. Eredu horrek zeharkako ikuspegiak ezartzea zailtzen du, eta, ondorioz, oztopo horiek gainditzeko ahaleginak bereziki konplexuak eta motelak dira. Horregatik, IV. Planaren indarraldian alderdi horietan proposatutakoa praktikan jartzea bereziki zaila zela adierazi zen.

- ❖ Identifikatutako gabeziak gorabehera, Donostiako Udalaren Gizarte Eraldaketarako Lankidetzaren eta Hezkuntzako IV. Gida Planak (2021-2024) aurrerapen esanguratsuak egin ditu. Hiru ardatz estrategikoen eta haien 14 ekintza-lerroen koadroaren laburpenaren arabera, planifikatutako jarduerak gehienak bete dira edo betetzen ari dira, eta horrek agerian uzten du aurrerapen nabarmena egon dela horien inplementazioan.

Lorpen horrek agerian uzten du Planaren diseinua eraginkorra izan zela, oztopoak gainditzeko eta planteatutako helburuetarantz aurrera egitea ahalbidetu zuenez. Zenbait alderdik hobekuntzak behar badituzte ere, lortutako emaitzek islatzen dute inplikaturako eragileen konpromisoa, bai eta Planaren exekuzioa gidatu eta neurtzeko inplementatutako tresnen funtzionaltasuna ere.

Hala ere, behin baino gehiagotan esan den bezala, bide luzea dago egiteko eta helburu asko betetzeko, eta, horretarako, inplikaturako eragileen konpromiso politikoa indartu eta handitu behar da, eta kasu honetan, bereziki, Donostiako Udalarena.

EKARPENAK ETA GOMENDIOAK

Ekarpenak eta gomendioak aurkeztu aurretik, oraingo ebaluazio-txostena [aurreko planaren ebaluazio-txostenarekin](#) alderatuko da. Helburua da identifikatzea zer alderditan lortu den aurrera egitea eta zer alderditan izan den aurrerapen eskasa IV. Planaren indarraldian. Konparazio mota horren bidez, planak ikuspegi zabal batetik aztertu nahi dira, epe ertain eta luzeko prozesuen zati gisa duten eginkizuna kontuan hartuta.

Aurreko planarekin gertatu zen bezala, oro har, esan dezakegu IV. Plan hau nabarmendu dela adostasun-maila handia lortu duelako eta Donostiako GGKEen eta inplikaturako beste eragile batzuen parte-hartze aktiboarekin gauzatu delako. Alderdi horrek, ebaluazioan parte hartzen duten eragile guztiek oso estimatuak, erraztu egin du esparrua, helburuak, funtsezko estrategiak eta tresnak partekatzea eta norberarenak balira bezala onartzea. Bestalde, ikusi da Planak jada abian zeuden praktikak eta ikuspegiak islatzen dituela neurri batean.

Era berean, Planak berrikuntza esanguratsu bat sartu zuen, Politiken Koherentziari lotua. IV. Plan honetan, koherentzia hori hiru zeharkako printzipioetako bat gisa eta hiru apustu estrategikoetako bat gisa finkatu zen, zegozkien ekintza-lerroekin batera. Printzipio berri horrek aurrerapen nabarmena eta aldaketa esanguratsua ekarri zuen hirugarren planarekiko, eta batzuek *asmo handiko* plantzat jo zuten, hain zuzen ere, gai hori txertatzeagatik, hori gauzatzeko zailtasunaren jakitun zirelarik.

Betetze-maila aztertzetik ondorioztatzen denez, Planak aurreikusitako neurri gehienak implementatzea lortu zuen. Hala ere, erronka handiagoei aurre egin behar izan zien funtsezko hiru arlotan: lehenik eta behin, politiken koherentziaren ardatzarekin zerikusia dutenak, besteak beste, beste sail batzuekin lankidetzan aritzeko beharraren ondorioz. Bigarrenik, jardueren jarraipenari eta ebaluazioari lotutako alderdiak (zuzeneko lankidetzaren alderdi batzuk berrikustea, Urteko Plan Operatiboak, etab.). Eta, azkenik, erakundeen arteko koordinazioarekin zerikusia duten gaiak.

Aurreko planean gertatu zen bezala, Udalak ez du bete lankidetzarako aurrekontuaren % 0,7raino iristeko konpromisoa. Beraz, Donostiako lankidetzaren sektorearen aldarrikapen historikoa da oraindik ere. Aurreko planean bezala, oraindik eskatzen da Kontseiluak erabakitzeke ahalmen handiagoa izatea.

Laburbilduz, IV. Planak parte kontinuista bat –zenbait helbururekiko konpromisoa mantentzen eta indartzen da– eta asmo handiko aldaketa sakonak konbinatzen ditu. Hala ere, azken hauek izan dira inplementatzen zailenak, eta, kasu batzuetan, ez da lortu haiek zehaztea. Gainera, aurreko planetik ebatzi gabe dauden gaiak daude oraindik, baita ikuspeirik kontinuisten barruan ere, hala nola lankidetzarako aurrekontuaren % 0,7 ez betetzea eta jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotutako erronkak, besteak beste.

Ondoren, hurrengo planerako kontuan har daitezkeen proposamen eta gomendio batzuk aurkeztuko ditugu, zehatz azaldu gabe:

- IV. Planaren ildotik jarraitzea, politiken koherentziarekin lotutako gaiak aurrerapen esanguratsuak eskatzen baitituzte oraindik. Beraz, hurrengo plana IV. Planarekiko ikuspegi kontinuista izatea iradokitzen da, alderdi batzuk epe ertain eta luzera gauzatuko baitira.
- Erakunde arteko zein erakunde barruko koordinazio-esparruen sorrera sustatzen eta indartzen jarraitzea.
- Udalak Udal Kontseiluaren aurrekontu-taldearen proposamena kontuan hartzea, legegintzaldi honetan % 0,7ra iristeko.
- Gorabehera politikoen planen gainean eraginik ez izateko, eta gauzatzeko orduan maniobra-gaitasun handiagoa izan dadin, indarraldi luzeagoa duten hurrengo planek diseinatzea: 5 edo 6 urtekoak izatea.
- Aurreko ebaluazioan jasota bezala, tarteko ebaluazioak egitea, planen jarraipen hobia egin ahal izateko.
- Aurreko puntuarekin lotuta, jarraipenari dagokionez, 2021ekoa bezalako Urteko Plan Operatiboak sortzea, baina haren jarraipena planean azaldutako adierazleen bidez gehiago zehaztu dadin.
- Talde teknikoa indartzea, ez bakarrik langile gehiago eta espezialitate desberdinetakoak sartuz, baita etengabeko prestakuntzaren bidez ere, haien gaitasunak eta trebetasunak hobetzeko.

- Udalaren lankidetzarako web orria etengabe eguneratu behar da dokumentuekin eta informazio garrantzitsuarekin, besteak beste. Horrek gardentasuna hobetzen lagunduko luke.
- Giza-Eraldaketakarako Hezkuntza jardueren, Udalaren lankidetzaren zuzenaren, e.a. ebaluazioak eta eraginaren neurketak hobetzea.
- Parte hartzeko esparruak hobetzen jarraitzea, hala nola Udal Kontseilua; eragiteko gaitasuna, parte-hartze ekitatiboagoa sustatzea eta antzeko alderdietan zentratzea.
- Plan berriari begira, funtsezkoa izango da EAEko lankidetzari buruzko lege berria kontuan hartzea. Horretarako, komenigarria litzateke eLankidetzaren prozesuan sartzea, gai horri behar bezala heltzeko.

ERANSKINAK

❖ EBALUATZAILEAREKIN EGINDAKO BILERAN PARTE HARTU DUTEN ORGANIZAZIOEN ZERRENDA.

6 organizaziok baino ez zuten parte hartu. Parte-hartzea txikia izan zenez, bi arratsaldetan egin nahi zena, egun bakar batean egin zen.

1. Lankidetzarako Ingeniaritza ICLI
2. TAU Fundazioa
3. Nazioarteko Elkartasuna
4. Gipuzkoako Medicus Mundi
5. Unicef
6. ADSIS Fundazioa

❖ ONLINE INKESTARI ERANTZUN ZIOTEN ORGANIZAZIOEN ZERRENDA.


1. Mundu Bakean
2. Mundubat Fundazioa
3. Gipuzkoako Medicus Mundi
4. Mugarik Gabe
5. TAU Fundazioa
6. UNICEF
7. Zehar-Errefuxiatuekin
8. ACPP
9. Lumaltik
10. UtopIa Fundazioa Tikal
11. Antolaketa zuzena da. Gure ustez, urtean lau bilera egitea ondo dago.¹
12. Adsis Fundazioa
13. Alboan Fundazioa
14. Mugen Gaietik
15. Nazioarteko Elkartasuna
16. Haurralde Fundazioa

¹ Egindako galderari erantzun ez zaionez, ez dakigu zer organizazio den.

❖ ONLINE INKESTAREN ERANTZUNAK:²

1. Zure ustez, Plana egokitzen al zaio Donostiako lankidetzaren sektorearen errealitateari? 1.
¿Consideras que el Plan es adecuado a la realidad del sector de la cooperación donostiarra?

16 respuestas



Zergatik? Arrazoitu zure erantzuna: / Por qué? Argumenta tu respuesta:

- Pandemiaz geroztik, giza garapen jasagarria, koherentzia eta kalitatea, eta elkartasun erantzunkidea batu egin dira, ikuspegi lokal eta global batean oinarrituta, bizitzaren jasagarritasuna erdigunean jarriz eta pertsonak ere zentroan jartzeko proposamenak artikulatzeko tokia emanez. Gizarte-eraldaketa bilatzen dugu, hemen zaintzean zentratzen dena, eta, han, nazioarteko lankidetzak laguntzen duen tokietan, lurraldearen, lurraren eta gorputzaren laguntza eta zaintza hobetzen. Zaintzaileak ere zaindu behar ditugula azpimarratuz, baliabide naturalak, pertsonak edo lurraldea izan. Esparru horretan, GGKEek ezinbestekotzat jo dugu Udalaren talde teknikoarekin eta Kontseiluarekin bat egitea, eta, oraindik bide luzea egin behar bada ere, planak indarrean jarraitzen du.
- Planak Donostiako gizartearen beharrei erantzuten die, eta gizarte zibileko organizazioekin batera egin da.
- Plana lurraldeko GGKEekin partaidetza-prozesu batean egin zen, parte-hartze erreal batean, eta horri esker, Donostiako lankidetzaren lurraldearen errealitatea ezagutu eta jaso ahal izan zen.
- Lehenetsitako eremuek bat egiten dutelako Donostiako elkarteekin lanarekin.
- Uste dugu orokorrean horrela egin dela sekzioaren parte-hartzearekin, kontseilu kideetan eta koordinakundearen ordezkarien parte-hartze aktiboarekin
- Uste dut bat datorrela organizazio gehienek lankidetzaren proposamenarekin, baina kanpoan uzten dituzten lankidetzaren eredu batzuk.
- Sektorearen eta, oro har, Donostiako gizartearen beharrei erantzuten dielako.
- Elkartasuna eta justizia soziala gizartearen zutabeak dira, eta planak lehentasunezko tokia ematen die.
- Donostiako organizazioekin adostutako dokumentua izan zen, sektorearen


² Gaztelaniazko erantzun idatziak euskaratu ditugu, baina euskaraz emandakoak bere horretan utzi ditugu.

kezka nagusiak azaleratzen dituena.

- Errealitatek abiatuta eta gizartearen parte-hartzearekin egin da.
- Eta, printzipio eta intereseko arloen zeharkakotasunaren bidez, udalerriko lankidetzaren eragileen errealitatea biltzen du.
- Nire ustez bai, zeren lortu nahi ditugun ODSen hobekuntza argia da eta emergentzia egoereena baita ere, beraz ongi egokitua dago.
- Nire ustez, planteatzen diren helburuak errealistak dira, eta garrantzia ematen zaio GEHri. Beste eremu batzuetan, ordea, ez da hori egiten, eta, horregatik, positiboki baloratzen dut. Planteatzen diren tresnak eta ardatzak egokiak iruditzen zaizkit. Nire ustez, Udaleko teknikariek konpromisoa eta motibazioa dituzte.
- 2020ko pandemiaren testuinguruan kokatutako eta, zalantzarik gabe, haren eraginpean egindako plana, eta, zentzu horretan, testuinguru horretako joera berrietara bideratzen dena.
- Sektorearekin eraiki delako
- Pixkanakako lankidetzaren plana delako, sektorearen errealitateara egokitua eta elkarrizketa politikoari jarraipena ematen diona, politiken koherentzia lotzeko.
- Bai, hobekuntzekin, baina aukera hori ez zegoen.

2. Zure iritziz, zenbaterainoko barneratze eta konpromiso politikoa du Donostiako Udalak Plan honekin? 2. ¿Cómo valoras el nivel de apropiaci... este Plan por parte del Ayuntamiento de Donostia?

16 respuestas



Zergatik? Arrazoitu zure erantzuna: / ¿Por qué? Argumenta tu respuesta:

- Ez da soilik baloratu behar Udaleko talde teknikoaren konpromisoa (kasu horretan, 5 izango litzateke), hobekuntza txiki batzuk izan badira ere; lantalde politikoek eta Udaleko gainerako zinegotzigoek Garapen Jasangarriaren, Erabileraren eta Kontsumo Arduratsuen arloan duten koherentzia politikoaren eta toki-ikuspegi globalaren ardatza, "Koherentzia... udal politika publiko guztietarako, beharrezkoa izanik Giza-Garapen Jasangarriaren ikuspegia zeharkako ardatz gisa txertatzea eta horretarako behar diren

baliabide guztiak ezartzea"... , bada ezerezean geratu da eta hori Udalak bere gain hartzea ezinbestekoa da, Udalaren eskumenei eragiten dielako, zuzenean, edo Udalak eragina izan dezakeen eskumenei eragiten dielako, Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren alderdi berak direlako.


- Planaren funtsezko zati bat, gutxienez, % 0,7ra iristean oinarritzen da, eta kasu honetan ez da iritsi, eta ez dugu uste etorkizun hurbilean hori gertatuko denik, Udalak planaz jabetzea eskasa izanik.
- Zailena politiken koherentziaren zatia izan da. Aurrera egiten saiatu gara, baina gai zaila da. Gainera, aurrekontua txikia denez, zaila da plana betetzea.
- Udala bere osoan ez du lan egiten Lankidetzaren Planaren printzipioen baitan eta apostu politiko eta aurrekontu aldetik asko hobetu beharko litzateke.
- Plana ez dute Donostiako Udalean dauden alderdi politiko guztiak barneratu, gobernuan egon diren bi alderdien artean ere desberdintsanak izan dira. Planarekiko konpromiso politikoa urteko plangintzetan eta, batez ere, Lankidetzaren aurrekontuan islatu behar da, baina hori ez da horrela izan, azkenengo urteetan ez dago gobernuaren borondate politikorik errekurtosei buruzko konpromisoak betetzeko (lantalde teknikoak murrizten ari dira eta 0,7a betetzeko, horrela jarraituz gero, 20 urte baino gehiago beharko genituzke).
- Nire ustez, Udala ez die guztiz erantzuten planean ezarritako konpromisoei, eta ez da ahaleginik egiten ari politiken koherentziaren eremuan.
- Udalaren lankidetzaren arloak konpromiso handia du planarekin, baina, kontseiluetako batzuetan aipatu den bezala, garrantzitsua izango litzateke politika koherentea izatea eta Udaleko arlo guztiek hainbat konpromiso hartu ahal izatea elkarrekin lan egiteko.
- Maila teknikoan jabetzea zuzena da, baina ez dago benetako konpromiso politikorik aurrekontu-igoera batekin osatzeko, koherentzia izan dezan.
- Egiteko prozesua nolakoa izan den
- Konpromiso politikoa ez bada frogatzen, praktikan lortzeko balio duten ekintzen bidez hain zuzen, nahiz eta borondate ona izan, helburuak ez dira inoiz lortzen.
- Nere ustez konpromisua handia da, bileratan aktiboki parte hartzen dute eta handitzeko aurrekontuaren handiketa garrantzitsua litzateke.
- Nire ustez, kontraesan handia dago planaren proposamenen eta Udalak egiten dituen ekintzen artean, hala nola kontsumo kontziente eta arduratsuen aldeko apustua eta Garbera handitzea. Uste dut asmo onak daudela planaren sorreran, eta politika publikoek bat etorri behar dutela planean egiten diren planteamenduekin.
- Oro har, jarrera ona da, eta elkarrizketa, irekitasun, e.a. handiak daude. Gertatu diren aldaketek eragina izan dezakete konpromiso horren egonkortasunean, baina talde teknikoak, kalitate eta konpromiso handia duenak, egonkortasuna ematen dio planaren lan globalari eta Kontseiluaren funtzionamendu onari.
- Aurrekontu-konpromisoa falta da, eta politiken koherentzia ere bai.
- Gobernuaren Planak 0,7a betetzeko borondatea erakusten du, baina bide luzea dago egiteko, lortu ahal izateko.
- Politiken koherentzia-taldeak alderdi horretan eragiteko aukera emango

duten dokumentuak eta tresnak landu ditu, bide hori egin behar dela jotzen baita; hala ere, beharrezkoa da elkarrekin lan egiten jarraitzea, aldaketa eraginkorrak eragin ditzaketen konpromiso politikoak ezar daitezzen.

- Planean ezarritako ildoak neurri handi batean bete dira, nahiz eta batzuk oraindik prozesuan dauden. Ahalegin handia egin da helburuetan aurrera egiteko, eta horrek erakusten du hasierako planaren sendotasuna eta balioa. Hala ere, gaur egungo egoera kontuan hartuta –aldaketa politiko globalak izaten dira, bai eta oinarriko eskubideen nolabaiteko atzerakada ere–, litekeena da ekintza-lerro edo ikuspegi gehigarri berriak txertatu behar izatea, sortzen ari diren erronka horietara egokitzeko eta erantzun integralagoa eta eraginkorragoa bermatzeko.


3. Nola baloratzen duzu Plana zenbateraino ezagutzen eta bereganatzen duzun? 3. ¿Cómo valoras tu grado de conocimiento y apropiación del Plan?

16 respuestas



4. Zure ustez, ba al dago koherentziarik Planean zehazten diren helburu, emaitza, ekintza eta baliabideen artean? 4. ¿Consideras que hay cohe...ultados, acciones y recursos definidos en el Plan?


16 respuestas




Zergatik? / ¿Por qué?

- Hemen hobe izango zen 1etik 5erako balorazioa egitea, 3 jarriko baikenuen, ñabardura garrantzitsuak daudelako. Oro har, badago koherentzia helburu, emaitza eta ekintzetan, baina, «aurrekontuari» dagokionez porrota erabatekoa da, eta, hortaz, baliabideei dagokienez ere bai, eta ez du ezertarako balio Agenda 2030ean kontatzeak aurrera goazela, baldin eta, erritmo horretan, 20 urte baino gehiago beharko dugun % 07ra iristeko.
- Planean bai, baina gero aurrekontuak urriak dira
- Aurreko ataletan esan bezala, oso plan interesgarria da, baina baliabide gutxi ditu gauzatzeko.
- Baliabide aldetik ez dago koherentziarik ez delako betetzen legeak markatutako %0,7a
- Planaren koherentzia orokorrean ona iruditzen zaigu
- Koherentzia dago helburuen, emaitzen eta proposatutako ekintzen artean, baina baliabideak falta dira.
- Plana bere osotasunean koherentea da.
- Baliabideak urriak direlako
- Ulertzen dut koherentzia dagoela, baina ez nuke jakingo haren maila baloratzen.
- Orain arte, ekintzen eta baliabideen bidez, ez dira lortu helburuak (% 0,7%)
- Nere ustez koherentzia handia da eta hobetzeko bi gauza proposatzen ditut. Aurrekontu hadiketa eta egun berezi bat urtean egiten diren ekintzak kalean aurkezteko.
- Uste dut koherentzia dagoela haien artean.
- Maila teorikoan, helburuen, emaitzen eta ekintzen artean koherentzia ikusten dugu, baina, konpromisoa egon arren, aurrekontuan ez da 0,7ra iristen (Kontseiluak urtero eskatzen du).
- Koherentea da, baina baliabideek ez dituzte aurreikusitako helburuak lortzen
- Nire ustez, planak aurrekontura egokitutako esku hartzeko estrategia bat ezartzen du, eta horri esker, ezarritako helburuak lortu ahal izango dira.
- Gure ustez, koherentzia sendoa dago helburu estrategikoen, ezarritako ekintzen eta esleitutako baliabideen artean. Hala ere, baliabideekin zerikusia duen zatia da, beharbada, itxaropen handienak sortzen zituena, eta ezin dugu ziurtasunez baieztatu asmo horiek erabat lortu direnik; uste dugu ez direla lortu. Onena izango zen tarteko ebaluazio bat egitea, planean aurreikusitako adierazleak erabiliz. Hala ere, plan honetan sartu ez dena kontuan hartu ahal izango da hurrengo plan estrategikoa hobetzeko eta indartzeko.

5. Planaren interes bereziko eremuei dagokienez, horietako bakoitzaren egokitasun-maila identifikatzen du: 1 oso gutxi eta 4 oso. 5. E...a de cada una de ellas, siendo 1 muy poco y 4 mucho



6. Planaren zeharkako lerroei dagokienez, horietako bakoitzaren egokitasun-maila identifikatzen du, 1 oso gutxi eta 4 asko izanik. 6. En relació... de cada una de ellas, siendo 1 muy poco y 4 mucho.



Interes bereziko eremuei eta egin nahi dituzun zeharkako lerroei buruzko edozein iruzkin egiteko espazioa. / Espacio para cualquier comentario sobre las áreas de especial interés y las líneas transversales que quieras realizar.


- Lehen erantzun dugu tokiko ikuspegia eta ikuspegi globala aplikatzen badira, ulertzen dela hemen egiten dugunak han eragina duela, eta gizarte-integrazio eta migranteak babestu eta haiei harrera egiteko politikak bultzatzen ez ditugun bitartean (jatorriari, erlijioari, generoari eta klaseari begiratu gabe), lan-kontratuak egin daitezzen zaintzen ez dugun bitartean, gure ingurua zaintzen ez dugun bitartean --turismoak dakarren jende-oldeetatik eta higiezinaren espekulaziotik babestuta--, genozidioaren aurkako salaketa irmoak egiten ez ditugun bitartean, eta horrekin nahasita dauden

enpresak finantzatzeari uko egiten ez diogun bitartean, aplikatzen ditugun politikak inkoherenteak izango dira... hemen egiten ez duguna eskatzen dugu han. Politiken koherentziak lan pilotu bat sortu du beste administrazioen aurrean, baina inplementatu egin behar da.

- Planak apustu irmoagoa egin beharko luke eskubide-urraketarik larrienen eta egoerarik zailenen alde, ahalegin handiagoa egin dezan larritasuna, ekintza humanitarioa eta krisialdirik handienak jasaten dituzten herrialdeak direla-eta (bereziki, Afrika).


7. Baloratu zure erakundeak azken lau urteetan Kontseiluan izan duen parte-hartzea. 7. Valora la participación de tu organización en el Consejo en estos últimos cuatro años

16 respuestas



8. Oro har balora ezazu Kontseiluaren funtzionamendua. 8. Valora en términos generales el funcionamiento del Consejo

16 respuestas




9. Uste duzu Kontseilua beharrezkoa dela? Gune interesgarria al da zure organizazioarentzat? Hobetzeko proposamenik duzu? / ¿Crees que el Consejo es necesario? ¿Es un espacio interesante para tu organización? Hobetzeko proposamenik baduzu?

- Ezinbestekoa da, eta komenigarria izango litzateke beste zinegotzigo batzuei parte hartzeko gonbidapenak egitea, politikak gauzatzeko beste eremu batzuetan sartuz joateko.
- Uste dut beharrezkoa eta funtsezkoa dela sektorearen iritzia Udalari helarazteko. Nire ustez, beste urrats bat eman beharko litzateke, eta aholku-emailea izatetik harago joan.
- Uste dugu beharrezkoa dela, elkartzeko eta hitz egiteko aukera ematen baitu.
- Beharrezkoa da bai. Alde batetik, bertan hartutako erabakiak bereziak izan beharko lirateke eta metodologikoki eta espazio aldetik aldaketak egon beharko lirateke elkarteen eta pertsonen partaidetza sustatzeko.
- Kontseiluaren funtzionamendua ona da, Donostian gure sektoreari buruzko erronka eta udal politikaz hausnartzeko foro aproposa da, elkarteen artean eta baita Udalaren Lankidetzaren Lantaldearekin eta alderki politikoeekin batera elkarlana sustatzeko aukera ematen du. Bertatik sortu ditugu hainbat lantalde (Koherentziarena, adibidez). Egia da plenoetan parte-hartzea hobetu daitekeela, organizazio batzuen ordezkarietako iritzia edo ekarpenak azaltzea kostatu egiten zaie.
- Uste dut oso positiboa dela, eta lankidetzaren arloak egiten duen jarraipenak ere oso maila handia duela.
- Kontseilua Udalarekin elkartzeko eta lotzeko esparru bat dela uste dut, beharrezkoa dena eta mantendu egin behar dena. Aldaketa batzuk egon diren arren, eta aldaketa politikoei azken kontseilua bertan behera utzi zuten arren, interesgarria iruditzen zait informazioa jasotzeko eta Udalarekin batera lan egiteko GKEei, oro har, garrantzitsuak iruditzen zaizkigun eremuetan.
- Espazio interesgarria eta beharrezkoa da, baina beste urrats bat ematea falta zaio: kontsultarako espazio hutsu izateari uztea, benetako pisu handia izateko.
- GKEek eta Udalak elkarrekin hitz egiteko esparru beharrezko eta ezinbestekoa da.
- Bai, beharrezkoa da, Donostiako GKEen topagune eta adostasunerako gune gisa, eta gure organizazioarentzat interesgarria da Udalaren lanean parte hartzen eta laguntzen jarraitzeko.
- Bai, beharrezkoa da ekintzen jarraipena egiteko. Gure erakundearentzat interesgarria da eta agian ematen diren dirulaguntzeri buruz komentario txiki bat jarriko nuke.
- Beharrezko esparrua da, eta batzuetan uste dut parte-hartzaileagoa izan beharko lukeela.
- Horrelako esparruak behar dira elkarriketa bateratuak sortzeko.
- Erabakitzailagoa izatea.
- Oso beharrezkotzat jotzen dut administrazioaren eta gizarte-organizazioen arteko esparrua, bertan ematen baita berrikuntzen berri eta sektoreari dagozkion hainbat gai eztabaidatzen baitira.
- Kontseilua funtsezko esparrua da hezkuntzan eta lankidetzan lan egiten duten gizarte-organizazioentzat, bai eta herritarrek, oro har, parte hartzeko ere. Hala ere, berriz pentsatu behar da nola funtzionatzen duen, dinamikoagoa eta freskoagoa izan dadin, eta ez hain zurruna. Beharbada, jarduteko ikuspegi berri bat izango litzateke esparru hori biziberritzea, elkarrekin gazteak modu aktiboagoan inplikatzeko, ideia eta energia berriak eman baititzakete. Horixe da, hain zuzen ere, erronka: nola lortu Kontseiluak eboluzionatzea eta belaunaldi guztientzat erakargarriagoa eta parte-hartzaileagoa izatea. Gaikako Batzorde Dinamikoak sortzea.

Lantaldeak edo batzordeak osatzea gazteei interesatzen zaizkien gaien inguruan, hala nola ingurumena, eskubide digitalak, genero-berdintasuna edo enplegarritasuna / lankidetzeta. Tresna digitalak inplementatzea, hala nola online parte hartzeko plataformak, inkesta interaktiboak edo foro birtualak, proposamenak eta iritziak jasotzeko. Mentoretza-programa bat sustatzea, gazteek Kontseiluko kide esperimentatuengandik ikas dezaten, eta haiek ideia eta energia berriak eman ditzaten. Horrek, Kontseilua dinamizatzeaz gain, komunitatearen eta elkarrenganako ikaskuntzaren zentzua indartzen du. Gazteen iritziak entzuteko eta politiken edo proiektuen diseinuan integratzeko esparruak sortzea gehiago inplikatzen motibatuko ditu. Kontseiluaren barruan lider gazteak prestatzeko programa espezifikoak ezartzea.

10. Dirulaguntzen deialdi publikoari buruz, baloratu oinarriak 10. Sobre la convocatoria pública de subvenciones, valora las bases

16 respuestas




Oinarriari dagokienez egin nahi duzun edozein ekarpenetarako espazioa: elementu positibo aipagarriak, hobetzeko gauzak... / Espacio para cualquier aporte que quieras realizar en relación a las bases: elementos positivos destacables, aspectos de mejora...

- Hobetzeko alderdien artean, dirulaguntzak eskatzeko proiektuak aurkezteko formularioak eta horiei lotutako koadroak, beti deskoadratzen dira-eta.
- Gehiago sinplifikatu behar dira.
- Nire ustez, oso zehatzak dira. Horrek alde positiboa du, subjektibotasunari tarte handirik ematen ez zaiolako, baina barematu beharreko gauza asko dituzte, eta, horregatik, batzuetan formulario korapilatsu samarrak ateratzen dira.
- Agian udaletxe bateko deialdia izateko apur bat zorrotzak dira eta apur bat sinplifikatu beharko liriateke.
- Oinarriak orokorrean ondo ikusten ditugu, arazo gehiago izaten dugu

formularioekin, adibidez justifikaziorako fakturen zerrendaren exzelarekin Plataformara egokitzeko eta igotzeko, batzuetan arazoak izaten ditugu, baina egia da lantalde teknikoa gure arazoei erantzuteko eta lana errazteko beti prest dagoela.

- Kontsumo arduratsua nagusitzen da beste gai batzuen gainera, eta, beraz, oso beharrezkoak diren beste esku-hartze mota batzuk baztertuta gelditzen dira.
- Aurrekontua urria da, baina, gainera, proiektuaren zenbatekoak 10 urte baino gehiago darama geldirik, eta horrek eragina du proiektuen kalitatean, KPIren igoerekin gero eta gutxiago egin daitekeelako zenbateko horrekin.
- Beste udalerrri batzuetako oinarriekin alderatuta, soldatetarako eta GKEetarako zeharkako zenbatekoak oso txikiak dira, eta horrek zaildu egiten du deialdian parte hartzea.
- Larrialdiko deialdiaren kasuan, deialdi-mota berrikustea.
- Sustraitzea gehiago baloratzea
- Gaur egun, organizazioek eta administrazioak lantalde bat antolatu dute, oinarrietan sartu daitezkeen hobekuntzak batera ikusteko, batez ere lankidetzan, zeharkako kostuei dagokienez, atzerriratutako langileei dagokienez eta egoitzari dagokienez.
- Formularioan hobekuntza bat egin daiteke.

11. Ezagutzen al dituzu udalak zuzenean bultzatutako lankidetzak eta eraldaketarako hezkuntza-ekimenak? 11. ¿Conoces la cooperación impulsada de forma directa por el ayuntamiento?
16 respuestas




Zer ekimen nabarmenduko zenuke? / ¿Qué iniciativa destacarías?

- Mundu Artean tresna ona da. Bultzatzen jarraitu dezakegu, baina berriro egin behar da; hainbat GGKEk eta tokiko eragileek egindako jarduerak –batez ere, Biodibertsitate Landagarriaren arlokoak, Agroekologiakoak, bidezko merkataritzaren eta kontsumo kontzientearen esparruan– ezinbestekoak dira. Hornidura-merkatuetan aplikatzea falta da... Donostia bezalako hiri batek ez du erreferentziazko merkaturik horretan, eta noizean behin Km 0 produktuen (biojasangarriak) jardunaldiak baino ez daude.
- Donostia Mundu Artean
- Gatazkei buruzko sentsibilizazioa GGKEek lantzen ez ditugun eremuetan

- Saharako herriarekin egiten den lana
- Donostia Mundu Artean programari lotutako zuzeneko-ekintzak, erakusketak bisita gidatuekin, adibidez. Gervasio Sanchezenak gogaratzen ditugu, adibidez.
- Egia auzoko adinekoentzako antzerki-dantza proiektua
- Ez dakit zein diren Udalak zuzenean bultzatutako jarduerak.
- Oporrak Bakean programa, Isabel Muñozen edo Gervasio Sánchezen erakusketak...
- Ez dut nahiko ezagutzen.
- Donostia Mundu Artean programa.
- Ez ditut ezagutzen eta lehendabizi aurkitu behar ditut
- Giza Eskubideen Zinemaldia
- Sahara ekimena; hitzaldia
- Munduen artean / Entre Mundos
- Bi ekimenak oso beharrezkoak dira, eta ez dut bat bera ere nabarmentzen.
- Ez ditugu ezagutzen, orain behintzat ez.


12. Baloratu Donostia Munduen Artean/Donostia Entremundos programa. 12. Valora el programa Donostia Munduen Artean / Donostia Entremundos.

16 respuestas



13. Zure jarduerak zabaltzeko erabiltzen duzu programa hau? 13. ¿Utilizas este programa para difundir tus actividades?

16 respuestas




14. Zure erantzuna "gutxitan edo inoiz ez" izan bada, zergatik? 14. En caso de que tu respuesta haya sido "pocas veces o nunca", ¿por qué?

3 respuestas




15. Baliabideei dagokienez, baloratu 1etik 4ra bitarteko alderdi hauek: 1 balorazio txarra da eta 4 oso ona. 15. En relación a los recursos, valora ...s del 1 al 4 siendo 1 mala valoración y 4 muy buena




16. Zure ustez, nahikoa informazio izan duzu Planaren garapen-mailari buruz? 16. ¿Consideras que has contado con suficiente información sobre el grado de desarrollo del Plan?

16 respuestas



17. Uste duzu beharrezkoa dela Plan berri bat izatea? 17. ¿Crees que es necesario contar con un nuevo Plan?

16 respuestas



Zergatik? /¿Por qué?

- Lokalekoa indartu behar da, alderdi batzuek ez dutelako aurrera egin (aipatu dira jada). Lehenik eta behin, aurrekontua dator; bigarrenik, politiken koherentzia inplementatzea, tokiko ikuspegi globala eraginkorra izan dadin.
- Baietz uste dut, 4 urte igaro direlako aurrekoa egin zenetik, eta ona dela eguneratzea.
- Izan ere, plana irakurriz, uste dut oso eguneratua dela eta ez zaizkit hobekuntza asko bururatzen. Arazoa gauzatzeko baliabideak izatea da.
- Agian 3 urterako izan beharrean apur bat gehiagorako izan daiteke, 4-5 urte
- Gaur egungo kontestuan Lankidetzako lege berria aprobatu eta gero instrumentuen hausnarketa egiten ari gara eta horrek ere Donostiako udalean bere eragina izango duela pentsatzen dugu, honengatik egokia ikusten dugu Plan berri egitea.

- Nire ustez, beharrezkoa da sustatu nahi den lankidetzaren ereduari buruzko gogoeta egitea eta lan-eremu berrietarantz aurrera egitea, berrikuntza sustatuz.
- Plan hori pandemiaren esparruan egin zenez, eta azken 4 urteetan gizarteak bilakaera izan duenez, planak ere bilakatu beharko luke.
- Lau urte igaro direlako eta egungo errealitatearekin eguneratu behar delako
- Baliteke hala izatea, ez daukat informazio nahikorik nire erantzuna argudiatzeko
- Oraindik ez dira helburuak lortu, eta lau urtean egoera koiunturala aldatu da.
- Plan berri bat beharrezkoa da denbora epea amaitzen delako.
- Errebitsatzea eta lanketa berri bat egitea ondo dagoela uste dut.
- Egungoa berrikusi eta ebaluatzea eta hura egin zeneko testuingurua aztertzea (COVID). Ebaluazioa egin eta gero, jarraitutasun-plan bat behar den aztertzea, ñabardurekin betiere. Lankidetzaren Lege berria ere kontuan hartu behar da.
- Indarrean dagoelako, errealitateari erantzuten diolako eta sektorearekin adostuta egin zelako.
- Planaren indarraldia 2024ra artekoa delako, eta, gainera, uste dudalako aurreko plana ebaluatu behar dela plan berria planteatu ahal izateko, egin beharreko aldaketak eginda.
- Gorago azaldu dugu: eskubideak sakon aldatzen ari dira; eskubide batzuk sortzen ari dira eta beste batzuk blindatu egin behar dira.

19. Ba al duzu proposamenik balizko plan honetarako? / ¿Tienes alguna propuesta para este posible Plan?

- Udalak 0.7arekin duen konpromiso erreala... igoera garrantzitsua aurrekontuan.
- Errekurtsoekiko konpromiso politikoa Planean bertan hobeto lotzea, sendotzea... Instrumentuei buruzko Koordinakundearen hausnarketa-prozesua jarraitzea eta kontuan izatea. Koherentzia eta Zeharkako kostuei (Fortalecimiento interno) buruzko lantaldeen helburuak, proposamenak eta ekintzak Plan berrian kontuan izatea
- Plan berriak apustu irmoa egin beharko luke 2030 Agendaren esparruan GJHei balioa emateko, lankidetzarekiko aurrekontu-konpromiso handiagoa bultzatzeko eta herritarrei lankidetzaren ahaleginak ikusarazteko, herritarrengana gehiago hurbiltzen gaituzten ekintza berritzaileagoen bidez.
- UNICEFen ikuspegitik, garrantzizko foku bat egon beharko luke Haurtzaroen, adin-talde kalteberena eta orainaldirako zein etorkizunerako gaitasun handiena duen kolektiboa den aldetik.
- Gaur egungo testuinguruan bereziki kalteberak diren eremuetan, hala nola Palestinan, Udalaren parte-hartzea zuzenean aztertzea.
- Inpaktu-adierazleak txertatzea.
- Plan berria amaitzearen dagoenaren eskutik joan beharko litzateke, gaur

egunekoa orokorki ongi dagoela iruditzen zaidalako eta bertan helburu berri baten jarri beharko litzake. Lehen esan bezala, nik egun berezi bat jarriko nuke egindako planak nolabait hirigintzari aurkezteko. Bestalde, aurrekontuen handiketa ahal den neurrian jarriko nuke hurrengo urteetarako.

- Zeharkako kostuak berrikustea. % 0,7a lortzean eta proiektu bakoitzeko zenbatekoetan aurrera egitea. Kontrapartidak ezabatzea.
- Sektorearekin lantzea eta parte-hartzailea izatea. Intereseko, kontsumoko eta ekoizpen kontziente eta arduratsuko arloari dagokionez, ikusten dugu lotura handiagoa bultzatu behar dela aipatutako sektorearekin toki-mailan, erakundeetatik beretik.
- Aurreko plana gizarte-organizazioekin adostu eta eztabaidatu zen; beraz, nire ustez, apustu honek plana elikatzen du.
- Momentuz, ez.

20. Galdetegiari eta/edo ebaluazio-prozesuari buruzko edozein iruzkin egiteko tarte. Eskerrik asko! / Espacio para cualquier comentario sobre el cuestionario y/o sobre el proceso de evaluación. Eskerrik asko!

- Eskerrak eman nahi dizkiogu Udaleko lankidetzatalde teknikoari, benetan lan handia egiten baitu.
- Eskerrik asko zuei!
- Eskerrak eman nahi dizkizuegu prozesuari buruz dugun iritzia partekatu ahal izateko eskaintzen diguzuen esparruagatik. Eskerrik asko!
- Uste dut datozen asteetarako planteatu diren bilerak tresna egokia izango direla plan berriaren oinarriak ezartzeko.
- Balorazio positiboa eman zaio indarrean dagoen planaren ebaluazioari.
- Eskerrik asko

AZTERTUTAKO DOKUMENTAZIOA

- Donostiako Udalaren Gizarte-Eraldaketarako Lankidetzako eta Hezkuntzako (GEH) Plan Zuzentzailearen ebaluazioa (2017-2019).
- Donostiako Udalaren Gizarte-Eraldaketarako Lankidetzako eta Hezkuntzako (GEH) Plan Zuzentzailea (2017-2019).
- Donostiako Udalaren Gizarte-Eraldaketarako Lankidetzako eta Hezkuntzako (GEH) Plan Zuzentzailea (2021-2024).
- Donostiako Udaleko Berdintasuneko, Lankidetzako eta Eskubide Zibiletako zinegotzigoaren mendeko arloetako politiken koherentziari buruzko txostena, 2023.
- 2021, 2022 eta 2023ko memoriak.
- 2021, 2022, 2023 eta 2024ko aurrekontuak.
- 2021, 2022, 2023 eta 2024 urteetako plan operatiboak
- 3/2024 Legea, Eusko Jaurlaritzarena, Lankidetzak eta Elkartasunari buruzkoa.
- Udal Kontseiluaren aurrekontu-taldearen dokumentua: Donostiako Udalaren garapenerako lankidetzak. 2025eko aurrekontu-konpromisoa.
- GARAPENERAKO HEZKUNTZA
- DONOSTIAKO UDALEAN
-
- 2025ERAKO AURREKONTU-KONPROMISOA